

Noaia!!!

www.noaia.com



Agur beroa jaso zuen
Joxe Antonio Altunak



Asteburu honetan hasiko da
Akerrak antolatu duen futbol txapelketa



ERREGEA ETA BUFOIA

NOR BAINO NOR, BERTSOLARIA ETA AKTOREA

Bertsoa eta antzerkia

Bufoia, aktorea: Ander Lipus

Erregea, bertsolaria: Unai Iturriaga

Zalduna, gai-jartzailea: Unai Elizasu

MARTXOAK 13, IGANDEA
18:00h, SUTEGIN

Sarrera: 5€ (Txiriboga tabernan, Noaua!ko egoitzan eta egunean bertan) Noaua!ko bazkideek 3€tan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldezturik



 **URTINEA**
LORATEGIA

Zatoz
eta jantzi kolorez
zure etxe, balkoi
zein lorategia

Udaberria Urtinean

Egun osoa irekia • San Esteban auzoa • 943 362 255 • Faxe: 943 366 054 • urtinea@urtinea.com

Albistea iruditan!!

Jaietako erraldoiak dantzan jartzeko proposamena

Santixabelak gero eta gertuago daude. Zentzu honetan, Nafartarrak Kultur Taldeak deialdi bat luzatu nahi du. Jaietako erraldoientzat ere bada, berez, dantza bat; ba hori da hain zuzen sustatu nahi dutena. Erraldoien dantza ikasteko ikastaro bat antolatzeko prest daude.

Aoizko erraldoiekin ibiltzen diren kideak ekarriko dituzte, erraldoiak nola dantzan jarri irakastera. Horretarako bolondresak bildu nahi dituzte Nafartarrak taldekoek. Ikastaroa arratsalde batekoa izango da eta denon artean adostuko da eguna. Izena eman nahi duenak 680 352 018 telefono zenbakira deitu edo udaleko Kultura Sailean 943 371 999 eman dezake izena.



ERRALDOIAK ETA TXARANGA, IAZKO SANTIXABEL EGUNEAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Imprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ERE BERRI BAT INGEMARREN _____ 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6 OR.

INAUTERIAK, IRUDITAN _____ 10. OR.

AKERRA FUTBOL TXAPELKETA _____ 15. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186



Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal) 943 36 09 80



677 37 34 66
943 36 69 69

Jose Etxabe (24h) USURBIL



IMANOL UBEDA

Langileak, prestuak, burugorrorak...

Uruguay eta Argentina aldean ibili nintzen duela bi aste. Gabonetan hartu ez nituen jai-egunak baliatuz, Amerika aldean izan naiz hamar bat egunez. Motxila soinean, toki zoragarriak ezagutu ditugu eta maiz antzeko galderari erantzun behar izan diogu, ea zein hizkuntzatan ari ginen hitz egiten, nongoak ote ginen... Ohiko kontuak euskaldun bidaiarientzat.

La gau gehienak youth hostel modukoetan egin genituen. Modu merkean, litera batean lo egiteko aukera duzu. Eta prezioan, gosaria barne dago. Formula honek jende ezberdina ezagutzeko aukera eskaintzen dizu. Egun horietan zehar, jatorri ezberdineko jendearekin egin genuen topo. Gehienak, ikasleak. Lanean hasi aurretik, munduan barrena bidaiatzen dabiltzanak. Edota nire moduan, opor egun batzuk baliatuz, lurralde berriak ezagutzeko irrikitan daudenak.

Buenos Aireseko youth hostel horietako batean ginen. Jantokian gosaltzen. Gazte bizi-bizi bat azaldu zitzaigun. Bere burua aurkeztu eta bost minutuan, bizitza osoa kontatu zigun, ingelera baliatuz. Israeldarra zela eta trivial jokoaren moduko telebista saio batean irabazi zuela Amerika alderako bidaiaria. Jantokian zegoen ordenagailua piztu eta han hasi zitzaigun youtube-n eskegitako saio horren bideoak erakusten.

Gure artean, boz altuan, "ondo hasi dugu eguna xeble honen kontuekin". Hizkuntza propioa, horrelakoetan ere, komunikatzeko tresna polita izan ohi da. Segituan galdezka hasi zitzaigun, ea nongoak ote ginen. "Basque country" lurraldekoak ginela esan eta hiru bider errepikatu behar izan genion. Baita idatziz ere. Seko jota gelditu zen. Bapatean, bere burua telebista saioan ikusiko ote zuen edo auskalo zer, baina lurralde horren berririk ez izateak kezka eragin zion. Eskerrak berehala beste hostel-kide batzuk etorri zirela, eta haiekin kateatu zenean ospa egin genuen jantokitik.

Uruguaitarrek eta argentinarrek, ordea, badute euskaldunen berri, eta jakin badakite mapa ofizialetan agertu ez arren, izan bagarela. Euskal Herritik jende asko joan zen aurreko mendean, lan bila. Eta orohar, fama ona dugu euskaldunok Amerika aldean. Langileak, prestuak, burugorrorak... Topikoak, badakizue.

Handik bueltan, Madril-Donostia hegaldian hain zuzen, Ana Urchuegia ikusi nuen nire abioi berean. Lasarte-Oriako alkate ohia, badakizue. Ez dakit kasu honetan, euskaldunoi lotutako topiko horiek balekoak diren. Bereziki, Nikaraguako Somoto herrialdeko jendearen artean.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Futbol Eskolako gurasoei gutun irekia

Hasi aurretik, argi utzi nahi genuke, gutun hau gure kezka eta ezinezkoak plazaratzeko argitaratzen dugula eta gure helburua ez dela inoren aurka joatea.

Behin hori argituta, gure harridura adierazi nahi genuke, orain 2 aste gurasoentzako antolatuta genuen bileraren emaitzarekin, kontuan izanik, Futbol Eskolan 41 umek parte hartzen dutela (80 guraso inguru) eta bilerara horietako 5 bakarrik azaldu zirela.

Hainbat ondorio atera daitezke datu hauek ezagututa. Alde batetik, autokritika eginez, bileran landu beharreko gaiak alde aurretik behar bezala ez genituela azaldu uler dezakegu. Baina bestalde, gehien kezkatzen gaituena, gurasoen inplikazio edo interes eza da.

Gure apaltasunean, gauzak ongi egin eta futbolaz gain ekintza osagarriak prestatzen

saiatzen gara; guretzako futbola eta batez ere Futbol Eskola, haurren heziketarako tresnak baitira. Horrexegatik, ESKOLA bat denez, haurren heziketaren alde lan egiten dugulako, guretzako ezinbestekoa da gurasoen parte hartzea.

Gai bat baino gehiago landu nahi genituen bileran. Horien artean, partidu egunetan, haurrei gauzak erraztu eta laguntzeko aholku batzuk ematea zen gure asmoa. Ez genuen gai hori planteatu, guraso zehatz batzuk jokaera desegokiak izaten ikusi genituelako.

Klubaren helburuetako bat, kirolaren praktika erakustez gain, kirol munduan mugitzen den pertsona orori (jokalariak, entrenatzaileak, monitorea, gurasoak, zaletuak...) beharrezko heziketa eta jokamoldea transmititzen saiatzea da.

Horregatik, kasu honetan, gurasoekin lan-keta bat egitea zen gure asmoa.

Kirolarekiko eta berari praktikatzen duten aldeko errespetua, norbere burua gaituzteko lan egiteko gogoia eta inguratzen gaituzten pertsonetikiko konprometuzua dira, lortu nahi ditugun baloreetako batzuk.

Egiten dugun honetan sinesten dugunez, etsipena alde batera utzi eta lanean jarraituko dugu. Horregatik, hurrengo batean, bilera batetarako deia luzatzen dizuegunean, bertaratzeko ahalegina egingo duzuela espero dugu.

Besterik gabe eta guran jartzen duzuen konfiantza eskertuz, jaso ezazue agur bero bat gure aldetik!

Usurbil Futbol Taldeko zuzendaritza

ERE berri bat Ingemarren

60 langileri eragingo die neurri honek

Ingemarreko enpresa zuzendaritzak 60 langileren kontratu iraungitzeren ERE-a aurkeztu duela jakinarazi dute Langileen Batzordetik. Behin betiko erabakia hartu eta aplikatu aurretik, kontsultetarako hilabete inguruko epea zabalduko da orain. Artean, egunotarako langileek hainbat mobilizazio deitu dituzte.

Enpresako zuzendaritzak Ingemarreko 60 langileren kontratuen iraungitze ERE-a aurkeztu ostean, Langileen Batzordetik berri eman dutenez, hilabete inguruko tartea zabalik dago orain, kontsulta epea deritzona. Datozen asteotan, beharrezko bilerak burutuko dituzte, zuzendaritzak aurkezturikoa onartu edo ez erabakitzeko. Langileen Batzordetik jakinarazi dutenez, azken bilera akordioarik dagoen edo ez era-

baki beharko da.

Adostasunik ez bada, Lan Ordezkaritzara eskualdatuko da gaia eta hor erabakiko da, enpresako zuzendaritzak aurkezturikoa onartu, alboratu edo moldatuko den.

Egunotan, enpresa atarian

Langileek enpresako erabakiaren aurkako informea aurkeztu dute, euren argudioekin. Eta egunotarako mobilizazioak deitu dituzte. Astearte goizaldeko 6:00etatik ostiralera arte enpresa aurrean egongo dira gau eta egun. Ostiralera bestalde, zehazteke duten mobilizazioen bat ere deituko dute martxoaren 11 honetan burutze-koak diren greba egunaren baitan. Aurrerago ere, ekintza gehiago antolatzeko asmotan dabilta, baina egoerak izan dezakeen eboluzioaren baitan hartu nahi dituzte erabakiok Ingemarreko langileek.



Legalizazioaren aldeko elkarretaratzea

Espainiako Auzitegi Gorenak Estatuaren Abokatuak eginiko eskaera aintzakotzat hartuta, Sortu alderdiaren erregistroko tramitea etena du. Inpugnazioaren aurka eta legalizazioaren alde elkarretaratzea burutu zen Mikel Laboa plazan martxoaren 4an.

Bestalde, herri programa aurkezteko herri batzarra deitu du Usurbilgo Ezker abertzaleak, larunbat honetarako, martxoak 12, 15:45ean Artzabalen, herritarren ekarpen eta proposamenak jasotzeko. Programaren zirriborroa usurbileginez.com web orrialdean eskura daiteke edo usurbilgoezkerabertzalea@usurbil.com helbidera e-mail bat bidalita.

Herritar bat hil da Txikierrin, auto batek harrapatuta

70 urteko gizonezko bat hil zen istripuz Txikierrin, joan den igandean, martxoaren 6an. Iluntzeko 20:20 aldera gertatu zen istripua. Aipatu gizonezkoa, usurbildarra, auto batek harrapatu eta gutxira hil zen. Osasun zerbitzuetako kideak istripu lekura gerturatzeko zendu zen gizona. Ertzaintza istripuaren zergatiak argitzen aritu da.



ASTEARTEAZ GEROZTIK ENPRESA ATARIAN DAUDE INGEMARREKO LANGILEAK.

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 · 943 370 344

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitzo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Mozorro festa



Etorri bezala joan zaizkigu, ziztu bizian aurtengo inauteriak. Ohi bezala, ikasleak izan ziren mozorro festari ongi etorria ematen lehenak. Martxoaren 4an goizean goizetik sumatzen ziren, mozorrotutako ikasle eta irakasleak Udarregi ikastola aldean, gero kalejiran eta azkenik noski, Oiardo Kiroldegian eskaini zuten emanaldian. Polita da, eguneroko izateari utzi, eta ezohiko pertsonaia baten lekuan jartzea. Berdin dio, mozorroaren itxura, tamaina eta kolorea zein diren. Itxurari norberak jartzen dion grazia, poza eta bizitasuna dira garrantzitsuenak.

Mozorroarekin zer egiten den gero... Beste kontu bat da. Joan den larunbateko festa giroaren aurretik, aipagarria da Udarregi ikastolako ikasleen Kiroldegiko saioa. Ikusgarria koreografiak prestatzeko zer nolako lanketa burutzen duten. Gainerako mailetako ikasleen lana eta ilusioa zapuztu eta ahaztu gabe, DBH-koen dantza saioak azpimarratu nahi nituzke. Euren kontutik prestatzen omen dituzte, jakin dudanez. Ez dute ez meritu makala. Hori bai mozorro festan sartzea, buru-belarri, eta bizia ematea egun batez, norberak duen itxura berriari.



AGINAGA

M^a ANGELES ARRUTI

Buzoi eskaera



Auzotar batzuek eskatu didate lerro hauetatik eskaera hau egiteko. Correoseko postariak ez omen dituzte gutunak oso txukun banatzen. Norberaren gutunak utzi beharrean, beraienak ez direnak uzten omen dituzte postontzietan.

Gaia serioa delakoan gaude, inork ez baitu zertan jakin behar besteen berri. Horregatik eskatzen dute "buzoia" jartzeko toki egokiena iruditzen denean, bereak ez diren gutunak botatzeko edo uzteko.

Correoseko bulegora jo dute batzuk eta posta zerbitzuko aldetik honako erantzuna jaso ere bai. Postarien lana gutunak banatzea dela eta Udalaren gaia dela "buzoia" jartzea. Legeen berri ez dakigu baina "dagokionari" gure eskaera luzatu nahi genioke, arazoa konpondua gera dadin.

Beharrezkoa dela uste dugu. Esan behar dugu banatzaileari gutunak ezin direla besteen buzoietan utzi. Norbere gutunak dagokien postontzietan baizik. Buzoia jartzea ez da "Correos"en lana izango, baina gutunak ondo eta zuzen banatzea bai.

KALEZAR

BELMONTE AUZO ELKARTEA

Gerontologikoa, badator

Udaberria ate joka dugun honetan, urtaro honek beti ekarri du bizi poza eta baita alor askotan, loraldia ere. Proiektu edo egitasmo mailan esaterako. Belaunaldi desberdinetako herritarrak bilduko dituzten bi gune nagusi izango ditu Kalezarrek etorkizunean.

Jaioberriak Haur Eskolan dauden artean, eraikin berean kokatzen den Eguneko Zentroa ordezkaturako duen gerontologikoa eraikitze bidean da jada. Hirugarren adinako 148 herritar hartzeko lekua izango du. Egitasmoa gauzatzeko, lehenbizi ordea, mojen konbentua behera bota beharko dute. Lan hauen gain, geltoki berria eraikiko dute N-634 errepidean eta handik Kalezarrera igogailu berria.

Kalezarren beraz lan kontuak izango ditugu datozen hileotan. Ez hori bakarrik ordea. Martxoan gaude, eta hiru hilabete baino ez dira falta udan sartu eta festei hasiera emateko. San Juanak gerturatzen ari dira, eta aurtun ere izango da zer ikusi eta gozatua gure auzoan. Lehenbizi ordea guztia prestatu behar. Aipaturakoa, lanak eta festak, Kalezarko hurrengo hileotako agendan.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Kronika egingabea



Zubieta herri txikia da (herria ere baden egunero auzitan jarria). Gutxi gara biztanleak. Kontu batzuetarako ere juxtukoak. Bizimodua? Ez da txarra herri txikikoa, baina baditu bere koskak: garraio publiko juxtua; bideak konpontzeko; kontu gehienetarako kanpora atera behar...

Bestetik, bertakoek parte hartze txikia dugu herrian. Egia da, tarteka, multzo handiko ekintzetan elkartzen gara: festak direla edo arazoan aurrean gure kezka azaltzeko ekintzetan (azken asteetan Flash-mob horren entseguak ikusgarriak izan dira frontoi ondoko Kaxkape loka-lean).

Baina, hala ere, exkas eta ahul gabilta hainbat kontutan: kultur arloan, edo gizarte harremanetan. Kostata biltzen gara horietan parte hartzeko. Eta horrela hainbat taldetan hankamotz gabilta. Zubieta Lantzen-en laguntza eskertuko lukete, edo ,besterik gabe, NOAUAN bertan, hau bezalako kronikak idazten.

Behar dugu jendea Zubietako kronika idazteko. Hau idazten ari naizen honek ez ditu ezagutzen Zubietako



bizilagunen kontu asko: baseritarren kontuak, ehiztari-
nak, kirolariak, edadetuenak, gazteenak, Eskola txiki-
ko gurasoenak... Eta seguru nago horietako asko oso
interesgarriak direla. Gustura irakurriko genituzke herri-
koen pozak eta kezak, baldin eta paperean jarriko bali-
tuzte.

Horrelakoak irakurri ahal izan arte Zubietako kronika
ez da guztiz egingo.

KALEBERRI

IRATI PORTU

Astebururako planak



Udaberriari berriro ere atea ireki-
tzeko garaia hurbildu zaigu. Berezia da urte sasoi hau askoren-
tzat, niretzat bai behintzat. Ez dakit egural-
diatik ote den ala eguzki orduak pixkana-
ka gehitzen hasten direlako, baina mundua
esnatzen den sententzia izaten dut. Kanean jende gehiago
ikusten da, ekintza gehiago antolatzen dira... urte garai
polita da.

Igande honetan, martxoaren 13an adibidez, plan des-
berdinak antolatu dira. Batetik, Andatza mendi taldeak
antolaturiko irteera dago: Oresako Urkieta mendira igo
eta Gorritiko gainak ezagutzeko aukera izango da inguru
haietan.

Bestetik, martxoaren 20an ospatuko den flash mob
erraldoirako azken entsegu saioa izango da frontoian,
eguerdiko 12:45etatik aurrera. Ni behin joan naiz ensaiat-
zera eta zalantzan zaudeten guztiok animatu nahi zaituz-
tet. Ez dizuet gezurrik esango, hasieran lotsa galanta pasa-
tu nuen nik behintzat, baina merezi izan zuen! Oso ondo
pasatu genuen gerturatu ginenok.

Azkenik, egun berean, igande arratsaldeko 18:00etatik



aurrera, “erregea eta bufoia” saioa izango da ikusgai
Sutegiko auditorioan. Bertan Unai Iturriagak bertsotan
eta Ander Lipusek antzerkia eginaz jolas bat egin behar
omen dute, Unai Elizasu gai jartzaile lanetan dela.
Ikusteko modukoa izango da inondik ere.

Martxoko bigarren asteburu honetarako planik ez
baduzue, hementxe dituzue aisialdi tarterako aukera
batzuk. Ondo pasa!

Errauste plantak mila milioi euro eta 21 urteko morroitzza eragingo die udalei, alkateen arabera

Kezkatuta joan ziren, kezkak helaraztera eta modu berean amaitu zuten Gipuzkoako hainbat udaletako ordezkariak Foru Aldundiko Ahaldu Nagusi Markel Olanorekin eta Garapen Iraunkorrerako diputatu Carlos Ormazabalekin martxoaren 4an bururiko bilera.

Zubietan eraiki asmo duten errauste plantaren finantzaketa hartu zuten ahotan eta zehazki, Europako Banku Inbertsioak, La Caixa eta Banesto bankuek eta Foru Aldundiak aipatu egitasmoari aurre egiteko sinatua duten akordioa. Horren inguruko kezka azaltzera joan ziren hainbat alkate gipuzkoar. Baina Hernaniko Udaleko alkate Marian Beitialarrangoitiak joan den ostiraleko bilera ostean, Aldundiko ordezkariari "jarrera oso itxia" sumatu zietela argitu zuen prentsurrekoan.

Aldunditik erabakiak hartuak dituztela jakinarazi zieten aipatu bilkuran, udalen bizkar, alkateok gogorarazten baitutenez, "batzuk erabakiak hartuta, beste batzuk egin beharko diogulako aurre. Udalok nahiz eta eskuduntza asko gureak izan, gure izenean hartzen ari dira erabakiak eta gure bizkar".

ALKATEEN ESKAERA

Hauteskundeak bitarteko bi hilabeteko moratoria eskatu zuten baina ezezko borobila jaso zuten Aldunditik

Bi hamarkadetarako zorpetzea

Hernaniko alkateak gezurtatu egin nahi izan zituen, argitara emandako finantza datuei buruzko hainbat informazio, gaion inguruko informazio falta salatzearekin batera. Aipatutakoa baino gastu kopuru handiagoa eragingo du errauste plantak, eta bi hamarkadetarako zorpetzea, alkateon esanetan: "500 milioi eurotz ari gara, baina gipuzkoarroi, maileguak eskatu eta ordaindu beharko direla kontuan hartuta, bikoitza kostako zaigu. Mila milioi euroko



UDAL ORDEZKARITZA, FORU ALDUNDIKOEKIN BILDU ONDOREN.

morroitzza batetaz ari gara, 21 urtetan luzatuko den morroitzza ekonomikoaz".

Errauste plantaren inguruko akordio ekonomikoak, Aldundia eta Udalak finantza erakundeen interesen mende uzten dituztela salatzen dute hainbat alkate gipuzkoarrek. Hernaniko alkateak adierazi eta akordioan jasotzen denez, "ez dira hainbat erabaki hartuko, salbu ez badago finantza erakundeen laguntza edo baieztoko espresoa".

Lanean jarraitzeko prest

Udal hauteskundeak ospatu arte, erabakiak hartuak daudela zioen Beitialarrangoitiak, eta oso larritzat jotzen zuena, baita datorren legegintzaldiari begirako beste hainbat ere. "Etorkizunean Aldundian eta Kontsortzioan agintea izango dutenen izenean erabakitzen ari dira, besteak beste, Aldundiak hainbat proposamenen aurka bozkatuko duela baitio akordioak", zioen Hernaniko alkateak.

Alkateok hauteskundeak bitarteko bi hilabeteko moratoria eskatu zieten Aldundiko ordezkariari, baina Ahaldu Nagusiaren "ezezko borobila" jaso izana adierazi zuten. Halere, alternatibak badirela gogorarazten dute udal ordezkariok. Eta honenbestez ez dutela amore emango, "gure esku dagoen guztia egiten jarraituko dugu".

Antzuloan ere, atez ate

Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen bezala, astelehenaz geroztik Antzuloan ere abian da atez ateko bilketa. Zubietan

eraiki asmo duten errauste plantatik gertu bizi diren herritarren ordezkariak batek martxoaren 2an Antzuloako Udalean burutu zen osoko bilkuran parte hartu zuen.

Gero eta babesle gehiago ditu Gernikako Akordioak

Aitzaga Kultur Elkartek bat egin du Gernikako Akordioarekin. Besteak beste, baita Nafartarrak taldeak, Andatza Mendizale Elkartek edota Hotzikara musika taldekoek ere.

Udalerrri mailan bakarrik ez, Euskal Herriko geroz eta eragile gehiago bategiten ari da Gernikako Akordioarekin. 300 babesle gehiago ditu: hasierako sinatzaileekin batera, besteak beste, Askapena, Orreaga Elkartea, Emakume Internazionalistak, Ekologistak Martxan, EHGAM, Anitzak, Memoriaren bidean...

Informazio gehiago:

blogak.com/gernika_usurbil/



AITZAGA KULTUR ELKARTEKOAK, ITXITAKO EGOITZA ATARIAN.

16 urtez alkate, bizi osoa herriaren alde lanean

69 urte bete zituen otsailean. Gaixorik zegoen aspaldi. Astelehenean hil zen Joxe Antonio Altuna eta bere heriotzak samina eragin zuen etxe askotan. Urte asko egin zituen politikagintzan. Bere ahalegin handiena udalgintza mailan gauzatu bazen ere, zuzenean pairatu zituen gizartean zein politika mailan urte hauetan guztietan eman diren hainbat gorabehera.

Alkatetza utzi bazuen ere, UHLrekin aurkeztu zen 2003ko udal hauteskundeetan, Arantxa Manterola buru zuen zerrendan. Legez kanpo utzi zuten zerrenda hura.

Zinegotzi 70eko hamarkadan
Alkate izan aurretik, 70eko hamarkadan zinegotzia izan zen udaletxean. NOAUA!ri 2003an egindako adierazpenetan, “orduan ere arazoak handiak ziren, baina lanerako sistemak aurkitu ziren. Herri batzuetan beste batzuetan baino gehiago lan egin zen. Ilegalizazioak lehengo giroa dakar: arriskua, kezka, pauso bakoitza pentsa-



JOXE ANTONIO ALTUNA, ALKATE ZEN GARAIAN (2003KO IRUDIA, NOAUA!).

tu beharra... Guk garai horiek ezagutu ditugu. Franco hil zen baina ordezkioak utzi ditu. Hala ere, aurrera egiten saiatu behar dugu”, zioen 2003ko udaberrian egindako adierazpenetan.

Intsumituen garaian atxilotua

Intsumisioa babesteagatik atxilotua izan zen. Berak azaldu zuen moduan, “plenoan hitzarturikoa bete baino ez

nuen egin. Baina faktura pasa zidaten. Ni ez nago damaturik, kontrakoa, harro nago egindakoaz eta gainera denborak arrazoia eman digu”.

Alkatetza utzi zuenetik, jubilatuta zegoen Joxe Antonio Altuna.

Sorreratik, NOAUA! Elkarteko bazkide izan zen. Lerro hauen bidez gure dolumin sentikorrenak bidali nahi dizkiogu bere sendiari.

4 urterako hitza eman eta 16 egin zituen alkatetzan

2003ko maiatzean utzi zuen alkatetza. NOAUA!ri eskaintako azken elkarrizketatik, pasarte hau berreskuratzea egoki iruditu zaigu.

N. Zer jaso duzu alkatetza hartu zenuenetik?

Joxe Antonio Altuna. Alkatetzarako proposatu zidatenean sorpresa handia hartu nuen. Alkatetza hartu eta berehala, askatasuna murriztu egiten zaizu; eta konpromisoak, berriz, handitu. Baina asko ikasten da batzuekin zein besteekin harremanetan... Nire inplikazioa erabate-

koa izan da eta herritarrekin konexio handia izan dut. Pertsona bezala gartu egin naiz. Disgustoak ere izan ditut baina bestelakoak gehiago izan dira. Egundo ez naiz alkatetzan sartu izanaz damutu.

Gauza asko utzi behar izan ditut. Baina etxean ondo hartu dute eta hori oso garantzitsua da. Emazteak eta alabek asko lagundu didate, batzutan purrusta batzuk ere jaso ditut; baina, orohar, babestua sentitu naiz.

N. 2003 arteko kargua izango zela uste al zenuen?

J. A. A. Ezta pentsatu ere. Lau

urterako konpromisoa hartu nuen. Baina hamasei egin ditut azkenean. Gauzak hobetzen doazela ikusten duzu eta egindakoak lanean jarraitzeko animoak eman izan dizkit.

N. Zeintzuk izan dira denbora honetako une gogorrenak?

J. A. A. Uste dut orain bizi dugula une zailena, 16 urte hauetako gogorrena. Orain arte, egin eta egin aritu gara baina orain gure lana eten nahi dute.

NOAUA! 160. alean jaso, 2003ko maiatzaren 30ean argitaratua.

Inauteriak, gero eta jendetsuagoak



Aurten Inauterietarako proposatu den gaiak joko asko eman du. Argazki hauek ikustea besterik ez dago. Haur, gazte eta heldu, mozorro festa ederra egin zuten denen artean pasa den larunbatean, Inauteri egunean. Txaranga doinuak eguerditik izan ziren kaleak girotzen. Eguraldiak asko lagundu zuen eta arratsalderako hura kolore festa. Zenbaitzuk, ordea, Inauteri festa ordu txikiak arte luzatu zuten. Sarean ere aurkituko dituzue argazki gehiago, NOAUA!ren facebook orrialdean, esate baterako, Lurdes Huetak ikusgai ipini dituenak. Tolosan esaten den bezala, gero eta gutxiago falta da datorren urteko Inauterietarako.



IA DEMA-PLAZA OSDA BEHAR ZUEN LABUN KOADRILA HONEK.



Itsasoak baditu milaka kolore..



Barre-terapia hobeagorik ba al da?

Igande arratsalde honetan, "Erregea eta bufoia" ikuskizuna Sutegin

Erregea eta bufoia izeneko ikuskizunean, antzerkia eta bertsoa elkarren eskutik datoz. Igande honetan, Sutegin izango dira Unai Iturriaga bertsolari "erregea" eta Ander Lipus aktore "bufoia". Unai Elizasu arituko da gai-jartzaile lanetan. Ikuskizuneko "zalduna" bera omen, eta bere bitartez jaso ditugu ikuskizun honen xehetasun gehiago.

NOAUA! Bertsoa eta antzerkia emanaldi berean uztartzeko ideia nondik dator?

Unai Elizasu. Urte dezente da, Ander Lipus aktorearekin harremana bage-nuela. Harreman hartatik, "bertsotranpak" emanaldia sortu zen. Bertsogintza ikuspegitik, ez gintuen asetzen emanaldi hark eta "erregea eta bufoia" sortu zen. Uztarketa denak zaizkigu interesgarri, beti ere, neurri eta maila berean bagaude entzulearen aurrean. Asko ikasteko aukera eman digu antzerkiak oholtzako gure jarreran, eta bertsotarako ere, ikusmira eta jarrera ezberdin bat eskatzen du. Azken batean, bi diziplina dira antzerkia eta bertsoa eta emanaldi honetan, ahalik eta modurik egokienean eta interesgarrienean parekatzen ahalegindu gara.

HIRU PROTAGONISTAK

"Ander Lipus izango da bufoia, Unai Iturriaga erregea eta Unai Elizasu gai jartzailea"

N. Zer modutan irudikatu behar zaituztegu, bufoia, erregea eta zalduna?

U. E. Jendeak imajinatu behar du, oholtza batean bi bertsolari eta gai-jartzaile bat egongo balira bezala. Kontua da, bertsolarietako bat aktorea



UNAI ELIZASU, UNAI ITURRIAGA ETA ANDER LIPUS AKTOREA,
"ERREGEA ETA BUFOIA" IKUSKIZUNEKO PROTAGONISTAK.

dela eta ez duela bertsotan egiten. Antzeztu egiten du. Bat-batean antzezten du, ez baitu gidoirik emanaldi honek. Zazpi personaia ezberdin irteten dira emanaldian zehar eta personaia bakoitzarekin egingo du bertsolariak kantuan gai-jartzaileak ezarritako gaiaren gainean. Erregea, bertsolariak bertsotan egingo du eta bat-batean; bufoiak, aktoreak bat-batean egingo du prosaz eta personaia ezberdinen babesean; eta gai-jartzaileak, gaiak ipiniko ditu bertan.

N. Jolaserako hitza erabiliko duzue. Bertsolaria segituan irudikatu dezakegu bere jardunean, baina aktorea zertan ikusiko dugu?

U. E. Aktorea, bertsolaria bezala, bat-batean jardungo da. Ez du ezer prestaturik eramango. Dena, bertan ipiniko zaion gaien harira sortuko dute. Prosez egingo du Ander Lipusek. Prosaz, hitzekin jolasean, bertsolariari galdetuz, erantzunez... baina bat-batean.

"Dena dugu kontuan gaiak jartzeko orduan"

NOAUA! Zeure kontu gaiak jartzzea. Zerbait aurreraterik bai?

Unai Elizasu. Usurbilen gaudela, aretoa dela, igande arratsaldea dela... dena dugu kontuan gaiak sortzeko. Pixka bat ezagutzen dugu herri hori eta badakit, nondik atera dezakedan zukua emanaldirako.

N. Zer esan herritarrei igandeko ekitaldira gonbidatzeko?

U. E. Orain bi aste izan genituen bi emanaldi (Bilbo eta Ondarru), eta saio osteko komentarioa hauxe izaten zen: "saioa, balekoa joan da baina barre... hau bai dela barre terapia!".

Sarreak alde zaurretik Txiribogan eta NOAUA'n salgai, 5 eurotan. NOAUA!ko bazkideek 3 eurotan eskura ditzakete baina soilik NOAUA!ko bulegoan.

Herritar eta elkarteen erreferentzia gune izango diren informazio panelak jarri ditu Udalak

Aurrerantzean, zer ekitaldi antolatu diren jakiteko udalerrian kokatu diren informazio paneletara joan besterik ez dute izango herritarrek. Antolatzaileek oharrak bertan jartzeko aukera izango dute.

Herrian sakabanatutako informazioa bildu asmoz, talde edo elkarte desberdinek antolatutako ekintzen berri emateko panelak jarri berri ditu Usurbilgo Udalak. Hartara, herritarrentzat erreferentziazkoak diren informazio guneak izatea nahi du Udalak. Beste helburu batzuk ere bete nahi dituzte; hala nola, paper gutxiago gastatzea, herritarrek eta eta talde zein elkarteek ingurugiroa eta udalerria zaintzeko kultura barneratzea,

txukun mantentzea edota baita bizikidetza arauak sustatzea ere.

Erabilera arauak

Panelak, besteak beste lekuotan jarri dira: Aginagan, Arrate Zahar Egoitza inguruan, Zubietan frontoi izkiñan, Kalezarren plaza inguruan eta Haur Eskolan, eta Kaxkoan; anbulategian eta Artzabalen. Santuenean ere beste informazio panel bat jarriko dute, bertan burutzen ari diren lanak amaitutakoan. Udaletik berri eman dutenez, aurrera begira panelok toki gehiagotan jartzeko ideia ez da baztertzen. Erabilera arau batzuk ere finkatu dituzte. Hasteko, panelak denek erabiltzeko aukera izan behar dutenez, kartelak jartzeko espazio



INFORMAZIO PANELETAKO BAT ANBULATORIO ATARIAN JARRI DUTE.

eta moduak errespetatzea eskatzen da, itsasteko zela erabiltzea. Txartelak nork jartzen dituen ere argi adierazi behar da, eta jartzen dituenak gerora kentzeaz arduratu beharko du.

Kultur parte hartze prozesua, martxan da

Abiatu da kultur alorreko parte hartze prozesua. Joan den martxoaren 2an burutu zen gaiotan aditua den Nicola Foronik gidaturiko lehen bilkura Artzabalen. Udal ordezkari, eta herriko kultur eta hezkuntza alorreko eragileetako ordezkariak bertaratu ziren hitzordua ekimenaren aurkezpen saioan bihurtu zen.

Orain arteko ibilbidea, egungo egoera eta etorkizuneko lan ildo edota estrategiak zehaztea dira kultur alorreko parte hartze prozesuaren helburu nagusiak. Kronologia ordenari jarraiki, iraganetik ekin zaio aipatu ekimenari.

Lehen bilkuran, partaideek euren burua aurkeztu ostean, gidari lanetan

diharduen Nicola Foronik proposatuta, orain arteko kultur gertaera garrantzitsuena aipatzeko aukera izan zuten hiru ikuspegietatik; norbere, elkarte eta herri ikuspegitik hain zuzen. Ikuspegi pertsonaletik aipamen nabarmena jaso zuten, Santixabel jaiek eta baita noski, Sagardo Egunak ere. Elkarte ikuspegitik, ordezkari bakoitzak bere bilguneak antolaturiko ekimenak azpimarratu zituen. Herri ikuspegitik aldiz, denetariko gertaerak azpimarratu ziren; Zumetaren frontoi atzeko murala, Mikel Laboari eginiko omenaldia, "Sarrailako giltza" herri antzerkia, NOAUA! eta Kultur Aholku Batzordearen sorrerak, Udarregiren mendeurrenako ekitaldiak...



LEHEN BILKURAKO IRUDIA. NICOLA FORONI DA HIZKETAN ARI DENA.

Hilaren 16an, bigarren saioa

Kultur arloko parte hartze prozesua bospasei saioz osaturikoa izango zela iragarri zuten Nicola Foronik joan den astean. Aldaketarik ez bada, datorren bilera, martxoaren 16an burutuko da, 18:00etan Artzabalen.

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Otar-Goxo
Elkarguak

Zubiaurrenea, nº2

☎ 943 36 55 81

20170 Usurbil

